

UDALAREN WEB ATARIAN KONTSULTA PUBLIKOA EGITEKO IRAGARKIA

Kontsulta publikoaren izapidea, honako xede hau duen Udal Ordenantza arautzailearena:

IRURAKO UDAL-LOKALEN ERABILERARA ARAUTZEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, arauak egiteko prozeduran herritarren parte-hartzea hobetzeko helburuarekin, Irurako udal-lokalen erabilerarari buruzko Udal Ordenantzaren proiektua egin aurretik, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta erakunde ordezkagarrienen iritzia jasotzen da, honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Hala nahi duten herritarrek, erakundeek eta elkarteek hurrengo galdetegian planteatutako alderdiei buruzko iritzia helaraz ditzakete 20 laneguneko epean, iragarki hau udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein lekutan aurkeztuz.

| | |
|--|---|
| Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak | <i>Elkarte-sare bat sortzea, pertsonen beren alderdi solidarioak, sozialak, kulturalak, kirolekoak edo interes orokorreko beste edozein motatakoak garatzeko.</i> |
| Araua onartzeko beharra eta egokitasuna | <i>Herriko elkarteek, eragileek zein herritarren beharrezko irtenbideak aurkitzea, udal-ondareari atxikitutako lokalen lagapenak ematearen bitartez. gizarte intereseko jarduerak egitea sustatuko delarik.</i> |
| Arauaren helburuak | <i>Irurako elkarte, kolektiboak eta bizilagunei batzarrak garatu eta euren helburuak lortzeko eremua erraztea eta hori eskuratzeko modua arautzea.</i> |
| Bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik | <i>Beharrezkoa da udal-lokalen erabilerarari buruzko Ordenantza bat onartzea, gaur egun udalerririk ez duen arlo horretako inolako erregulaziorik.</i> |